

IKASTUNITATEA

BAT GEHI BAT BI DIRA

ZENBAKIAK EUSKARAZ OSO ZAILAK DIRELA PENTSATZEN
DUEN HORIETAKOA AL ZARA?

**Gustuko al dituzu zenbakiak? Eta euskaraz?
Ezagutzen al dituzu? Erabiltzen al dituzu?**

**Kontuak euskaraz ateratzea kostatzen bazaizu, lan
pixka bat egitea proposatzen dizugu. Ikastunitate
honen bukaeran, ikusiko duzu zein erraz egiten
dituzun eragiketa matematikoak!**

Ikastunitatearen helburu nagusia:

- Zenbaki kardinalen eta ordinalen idazkera eta beraien inguruko arau nagusiak

Halaber, aztergai hauek ere jorratuko ditugu:

- Kopuru jakin bat emanda, hainbat eragiketa matematiko euskaraz
- Txekiak nola bete: Datak euskaraz eta zenbakiak letraz
- Kirolarien denborak emanda, ordenan jarri

Zenbakiak? Zertarako?

Has gaitezen hasieratik. Zertarako erabiltzen ditugu zenbakiak gure eguneroko bizimoduan? Galdera honi erantzuten saiatu gara gu eta hona hemen aukeratu ditugun hiru erabilera posible:

1. Zenbakiak eta erosketak

Eguneroko erosketak egitea ez da askoren gustuko lana izaten, batez ere txanponekin gora eta behera ibili behar dugulako.

Demagun diru-zorroan segidan, egunez egun zehaztuta, aurkituko duzun diru-kopurua duzula. Irakur ezazu salneurrien zerrenda eta galderei erantzun.



Nire diru-zorroa

<i>Astelehenean:</i>	<i>Hogeita hamalau euro</i>
<i>Asteartean:</i>	<i>Berrogeita bi euro eta hirurogei zentimo</i>
<i>Asteazkenean:</i>	<i>Hamazazpi euro eta lau zentimo</i>
<i>Ostegunean:</i>	<i>Hogeita hamasei euro</i>
<i>Ostiralean:</i>	<i>Hogeiturogei euro eta hogeita bederatzi zentimo</i>
<i>Larunbatean:</i>	<i>Hirurogeita hemeretzi euro eta berrogei zentimo</i>

Salneurriak

<i>Ogi handia:</i>	<i>Laurogeita hamar zentimo</i>
<i>Egunkaria:</i>	<i>Laurogei zentimo</i>
<i>Esne-kaxa:</i>	<i>Laurogeita bost zentimo</i>
<i>Ur-botila:</i>	<i>Hogeita hamahiru zentimo</i>
<i>Azukrea:</i>	<i>Euro bat eta hamar zentimo</i>

Zer erosi?

Salneurriak ikusita, saia zaitez galderei erantzuten:



Oharra:

Batuketa egiteko: "gehi" erabili
Kenketa egiteko: "ken" erabili
Biderketa egiteko: "bider" erabili

	BAI	EZ
1. Astelehenean, daukazu dirua kontuan hartuta, posible al zenuke hamabi botilako lau ur-kaxa, egunkaria, pare bat ogi handi eta bi zorro azukre erostea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
2. Asteartean, daukazu dirua kontuan hartuta, posible al zenuke hamabi botilako hamar ur-kaxa, egunkaria, ogi handi bat eta lau zorro azukre erostea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
3. Asteazkenean, daukazu dirua kontuan hartuta, posible al zenuke hamabi botilako ur-kaxa bat, egunkaria, hiru ogi handi eta azukre zorro bat erostea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
4. Ostegunean, posible al zenuke hamabi botilako bost ur-kaxa, egunkaria, lau ogi handi eta bi zorro azukre erostea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
5. Ostiralean, daukazu dirua kontuan hartuta, posible al zenuke hamabi botilako bi ur-kaxa, egunkaria, pare bat ogi handi eta hamar zorro azukre erostea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
6. Larunbatean, daukazu dirua kontuan hartuta, posible al zenuke hamabi botilako hogeiturogei ur-kaxa, egunkaria, ogi handi bat eta sei zorro azukre erostea?	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>



2. Zenbakiak eta kirola

Kirol emaitzetan ere asko dira erabiltzen diren zenbakiak: kirolariek egindako denborak, lortutako markak, gol-kopurua... Hona ekarri ditugunak Behobia-Donostia lasterketaren hainbat urtetako emaitzak dira, baina nahasian daude. Irakur itzazu arretaz eta eskuineko zutabean idatzi zenbatgarren denbora egin duen kirolari bakoitzak.



Kontuan izan zenbakiak idazteko garaian letraz idatzi behar dituzula. Ez dakizula ziur nola idazten diren? Lasai, aurrerago izango duzu eta zuzentzeko aukera!

**Guztien artean,
zenbatgarren
denbora?**

Urtea	Irabazlea	Egindako denbora	Guztien artean, zenbatgarren denbora?
1979	Begoña Zúñiga	1h 21' 1"	Hogeigarrena / 20.a
1980	M ^a Luisa Irizar	1h 22' 35"	
1981	Begoña Zúñiga	1h 27' 10"	
1982	Carol Rosset	1h 19' 20"	
1983	M ^a Luisa Irizar	1h 17' 20"	
1984	M ^a Luisa Irizar	1h 15' 45"	
1985	M ^a Luisa Irizar	1h 12' 1"	
1986	B. Aytmier	1h 19' 20"	
1987	Begoña Zúñiga	1h 19' 40"	
1988	V. Hernández	1h 18' 37"	
1989	Marina Prat	1h 12' 27"	
1990	Gloria Azpilicueta	1h 20' 58"	
1991	Rosi Talavera	1h 15' 13"	
1992	Marina Prat	1h 15' 1"	
1993	M ^a Luisa Irizar	1h 15' 31"	
1994	M ^a Luisa Irizar	1h 12' 26"	
1995	M ^a Luisa Irizar	1h 13' 16"	
1996	Rocío Ríos	1h 10' 25"	
1997	Angelines Rodríguez	1h 12' 40"	
1998	Rocío Ríos	1h 8' 54"	Lehena/Lehenengoa/1.a
1999	Amaia Ortega	1h 12' 45"	
2000	M ^a José Pueyo	1h 13' 43"	
2001	Rocío Ríos	1h 11' 50"	

Idazteko garaian zalantzarik sortu bazaizu, lasai egon, izango duzu eta birpasatzeko aukera aurrerago. Zuzenketa-orria, berriz, 8. orrialdean aurkituko duzu.

3. Zenbakiak eta diru-kontuak

Gure etxeko finantzek ere kezka sortzen digute: banketxera joatea, ordainketak egitea... eta abarrak eguneroko bihurtu zaizkigu. Pentsa dezagun ordainketa bat egin behar dugula eta horretarako txeke bat luzatuko diogula lana egin digunari. Nola bete, orde, euskaraz?

Ondoko datuak erabiliz, txekeak bete:

NORI	KOPURUA	DATA
1. <i>Eramaileari</i>	10.566 €	2003-10-13
2. <i>Joxe Garciari</i>	4.789 €	2003-11-09
3. <i>Amaia Lertxundiri</i>	888 €	2003-12-21

Kontuan izan zenbakiak idazteko garaian letraz idatzi behar dituzula. Ez dakizula ziur nola idazten diren? Lasai, aurrerago izango duzu eta zuzentzeko aukera!

AURREZKI KUTXA

EUR _____ €

Txeke honen orde ordain _____-(r)i

Euroak _____

Herria eta data letraz idatzi _____ Jabearen izenpea

AURREZKI KUTXA

EUR _____ €

Txeke honen orde ordain _____-(r)i

Euroak _____

Herria eta data letraz idatzi _____ Jabearen izenpea

AURREZKI KUTXA

EUR _____ €

Txeke honen orde ordain _____-(r)i

Euroak _____

Herria eta data letraz idatzi _____ Jabearen izenpea

Nola idazten dira, bada, zenbakiak?

Aurreko ariketak egiteko garaian zalantzarik sortu bazaizu, hona hemen zenbakien idazkerari buruz gogoeta egiteko unea.

1. Zenbaki kardinalak

Hona hemen Euskaltzaindiaren erabakia zenbakien idazkeraz:

0	zero, huts	49	berrogeita bederatzi
1	bat	50	berrogeita hamar
2	bi	51	berrogeita hamaika
3	hiru	52	berrogeita hamabi
4	lau	53	berrogeita hamahiru
5	bost (bortz)	54	berrogeita hamalau
6	sei	55	berrogeita hamabost (berrogeita hamabortz)
7	zazpi	56	berrogeita hamasei
8	zortzi	57	berrogeita hamazazpi
9	bederatzi	58	berrogeita hemezortzi (berrogeita hamazortzi)
10	hamar	59	berrogeita hemeretzi
11	hamaika	60	hirurogei (hiruretan hogeii)
12	hamabi	61	hirurogeita bat (hiruretan hogeita bat)
13	hamahiru	62	hirurogeita bi (hiruretan hogeita bi)
14	hamalau	63	hirurogeita hiru (hiruretan hogeita hiru)
15	hamabost (hamabortz)	64	hirurogeita lau (hiruretan hogeita lau)
16	hamasei	65	hirurogeita bost (hiruretan hogeita bortz)
17	hamazazpi	66	hirurogeita sei (hiruretan hogeita sei)
18	hemezortzi (hamazortzi)	67	hirurogeita zazpi (hiruretan hogeita zazpi)
19	hemeretzi	68	hirurogeita zortzi (hiruretan hogeita zortzi)
20	hogeii	69	hirurogeita bederatzi (hiruretan hogeita bederatzi)
21	hogeita bat	70	hirurogeita hamar (hiruretan hogeita hamar)
22	hogeita bi	71	hirurogeita hamaika (hiruretan hogeita hamaika)
23	hogeita hiru	72	hirurogeita hamabi (hiruretan hogeita hamabi)
24	hogeita lau	73	hirurogeita hamahiru (hiruretan hogeita hamahiru)
25	hogeita bost (hogeita bortz)	74	hirurogeita hamalau (hiruretan hogeita hamalau)
26	hogeita sei	75	hirurogeita hamabost (hiruretan hogeita hamabortz)
27	hogeita zazpi	76	hirurogeita hamasei (hiruretan hogeita hamasei)
28	hogeita zortzi	77	hirurogeita hamazazpi (hiruretan hogeita hamazazpi)
29	hogeita bederatzi	78	hirurogeita hemezortzi (hiruretan hogeita hemezortzi)
30	hogeita hamar	79	hirurogeita hemeretzi (hiruretan hogeita hemeretzi)
31	hogeita hamaika	80	laurogei (lauretan hogeii)
32	hogeita hamabi	81	laurogeita bat (lauretan hogeita bat)
33	hogeita hamahiru	82	laurogeita bi (lauretan hogeita bi)
34	hogeita hamalau	83	laurogeita hiru (lauretan hogeita hiru)
35	hogeita hamabost (hogeita hamabortz)	84	laurogeita lau (lauretan hogeita lau)
36	hogeita hamasei	85	laurogeita bost (lauretan hogeita bortz)
37	hogeita hamazazpi	86	laurogeita sei (lauretan hogeita sei)
38	hogeita hemezortzi (hogeita hamazortzi)	87	laurogeita zazpi (lauretan hogeita zazpi)
39	hogeita hemeretzi	88	laurogeita zortzi (lauretan hogeita zortzi)
40	berrogei	89	laurogeita bederatzi (lauretan hogeita bederatzi)
41	berrogeita bat	90	laurogeita hamar (lauretan hogeita hamar)
42	berrogeita bi	91	laurogeita hamaika (lauretan hogeita hamaika)
43	berrogeita hiru	92	laurogeita hamabi (lauretan hogeita hamabi)
44	berrogeita lau	93	laurogeita hamahiru (lauretan hogeita hamahiru)
45	berrogeita bost (berrogeita bortz)	94	laurogeita hamalau (lauretan hogeita hamalau)
46	berrogeita sei	95	laurogeita hamabost (lauretan hogeita hamabortz)
47	berrogeita zazpi	96	laurogeita hamasei (lauretan hogeita hamasei)
48	berrogeita zortzi	97	laurogeita hamazazpi (lauretan hogeita hamazazpi)

98	laurogeita hemezortzi (lauretan hogeita hemezortzi)
99	laurogeita hemeretzi (lauretan hogeita hemeretzi)
100	ehun
101	ehun eta bat
102	ehun eta bi
200	berrehun
300	hirurehun
400	laurehun
500	bostehun (bortzehun)
600	seiehun

700	zazpiehun
800	zortziehun
900	bederatziehun
1.000	mila
1.200	mila eta berrehun
1.201	mila berrehun eta bat
1.984	mila bederatziehun eta laurogeita lau
1.000.000	milioi bat
10.000.000	hamar milioi
1.000.000.000	mila milioi (miliar bat)



Arretaz begiratu zenbakiei eta segidan aurkituko dituzun arauak osatzen saia zaitez, *lotuta*, *bananduta*, *ehunekoak*, *hamarrekoak*, *koma...* behar den tokian jarritz:

- Hogeitik ehun bitarteko zenbakiak _____ idatziko ditugu.
- Ehunekoak _____ idatziko ditugu.
- Milakoak _____ idatziko ditugu.
- Milioikoak ere _____ idatziko ditugu.
- Ehunetik milara doazen zenbakiak era honetan idatziko ditugu: ehunekoak hamarrekoetatik _____, agertzen diren bi parteen arteko lotura “_____” delarik.
- Milatik gorako zenbakiak idazteko, irizpide berberaz baliatzen gara. Hots, milakoak _____ bananduta eta bai hauek _____ ere.
- Milakoen eta ehunekoaren artean _____ bat jarriko dugu, bestela kakofonia sortuko litzaiguke.
- Milioikoetan, _____.
- Zenbakien hasierako h-a, hiruairena izan ezik, _____ egiten da zenbakiak lotzerakoan.
- Aldiz, hiru zenbakiaren h-a _____ egiten da.

Laburbilduz:

- Zenbakiak lotzerakoan hasierako h-a galtzen ez duen zenbaki bakarra _____ da.
- Hamarrekoetan bi parteak lotzeko erabiltzen dugun ETA, _____ bihurtzen da
- Honez gainera, $A + A = \underline{\quad}$
- $A + E = \underline{\quad}$

Hona hemen beste ariketatxo bat orain arte ikasi edota birpasatutakoa praktikan jar dezazun. Segidan aurkituko dituzun zenbakiak letraz idatz itzazu:

- | | | |
|----|-----------|-------|
| 1. | 3.567 | _____ |
| 2. | 788 | _____ |
| 3. | 1.002 | _____ |
| 4. | 22.467 | _____ |
| 5. | 1.200.000 | _____ |

Zalantzarik sortu bazaizu, 8. orrialdean aurkituko duzu zuzenketa-orria.

2. Ordinalen eta banatzaileen idazkera

Oraingo honetan, osorik eskainiko dizugu araua, arretaz irakur ezazu.


Hauxe da Euskaltzaindiaren erabakia:

- 1) Ordinaletan "garren" ahoskatzen den bakoitzean puntua jar bedi haren ordainean:
Atano X. arekin, XX. mendean, 12. mendean.
- 2) Oso-osorik letraz idazteko orduan arazoak sor ditzaketen ordinalak honela egiten dute: *hogeita batgarren, hirurogeita batgarren*. Hala ere, *bosgarren, hogeita bosgarren, hirurogeita hamabosgarren*, e.a. idatziko da.
- 3) Distributiboak, *-na* baliatuz osatzen direnean, honela idazten dira: *bana, bosna, ehuna, mila bana, zenbana*, e.a. Hauen aldaerak ere (*borzna*) berdin idatziko dira.

Lehen egindako lana birpasatzeko garaia da

Orain bai, *Zenbakiak? Zertarako?* atalean idatzi behar izan dituzun zenbakiak behar den bezala idatzi dituzun ala ez ziurtatzeko garaia duzu. Errepasa itzazu eta saia zaitez zeure kasa zuzentzen. Dena dela, 8. orrialdean aurkituko duzu zuzenketa-orria.

Hemen jaso, hurrengo baterako kontuan izateko oharrak:

Nola idatzi dut nik zenbakia	Nola idatzi behar nuen
	

IKASTUNITATEA

Zuzenketa- orria

1. Zenbakiak eta erosketak

Zer erosi?

Hauexek dira erantzun zuzenak:

- Bai, nik hogeita hamalau euro ditut eta hogeituro eta hirurogeita lau zentimo behar ditut erosketak horiek egiteko.
- Ez, berrogeita bi euro eta hirurogeituro zentimo besterik ez baitauzkat eta nik berrogeita bost euro eta hirurogeita hamar zentimo beharko nituzkeelako.
- Ez, nik hamazazpi euro eta lau zentimo ditut eta hogeituro eta berrogeita lau zentimo beharko nituzkeelako.
- Bai, nik hogeita hamasei euro ditut eta hogeita sei euro eta berrogeituro zentimo besterik behar ez ditudalako.
- Ez, nik hogeituro eta hogeita bederatzi zentimo ditut eta hogeita bat euro eta berrogeita hamabi zentimo beharko nituzkeelako.
- Ez, nik hirurogeita hemeretzi euro eta berrogeituro zentimo ditut eta laurogeita zazpi euro eta berrogeita hamar zentimo beharko nituzkeelako.

3. Zenbakiak eta diru-kontuak

Txekeak bete:

- Hamar mila, bostehun eta hirurogeita sei euro
- Lau mila, zazpiehun eta laurogeita bederatzi euro
- Zortziehun eta laurogeita zortzi euro

2. Zenbakiak eta kirola

Urtea	Irabazlea	Egindako denbora	Guztien artean, zenbatgarren denbora?
1979	Begoña Zúñiga	1h 21' 1"	Hogeigarrena/20.a
1980	M ^a Luisa Irizar	1h 22' 35"	Hogeita batgarrena/ 21.a
1981	Begoña Zúñiga	1h 27' 10"	Hogeita bigarrena/22.a
1982	Carol Rosset	1h 19' 20"	Hamazazpigarrena/17.a
1983	M ^a Luisa Irizar	1h 17' 20"	Hamabosgarrena/ 15.a
1984	M ^a Luisa Irizar	1h 15' 45"	Hamalaugarrena/ 14.a
1985	M ^a Luisa Irizar	1h 12' 1"	Laugarrena/ 4.a
1986	B. Aytner	1h 19' 20"	Hamazazpigarrena/ 17.a
1987	Begoña Zúñiga	1h 19' 40"	Hemezortzigarrena/ 18.a
1988	V. Hernández	1h 18' 37"	Hamaseigarrena/ 16.a
1989	Marina Prat	1h 12' 27"	Seigarrena/ 6.a
1990	Gloria Azpilicueta	1h 20' 58"	Hemeretzigarrena/ 19.a
1991	Rosi Talavera	1h 15' 13"	Hamabigarrena/ 12.a
1992	Marina Prat	1h 15' 1"	Hamaikagarrena/ 11.a
1993	M ^a Luisa Irizar	1h 15' 31"	Hamahirugarrena/ 13.a
1994	M ^a Luisa Irizar	1h 12' 26"	Bosgarrena/ 5.a
1995	M ^a Luisa Irizar	1h 13' 16"	Bederatzigarrena/ 9.a
1996	Rocío Ríos	1h 10' 25"	Bigarrena / 2.a
1997	Angelines Rodríguez	1h 12' 40"	Zazpigarrena/ 7.a
1998	Rocío Ríos	1h 8' 54"	Lehenallehenengo/ 1.a
1999	Amaia Ortega	1h 12' 45"	Zortzigarrena/ 8.a
2000	M ^a José Pueyo	1h 13' 43"	Hamargarrena/ 10.a
2001	Rocío Ríos	1h 11' 50"	Hirugarrena/ 3.a

Nola idazten dira, bada, zenbakiak?

Hona hemen arauak, behar bezala osatu eta gero.

- Hogeituro ehun bitarteko zenbakiak **bananduta** idatziko ditugu. Adibidez, 23: hogeita hiru.
- Ehunekoa **lotuta** idatziko ditugu. Adibidez: 100 ehun, 200 berrehun, 300 hirurehun, 400 laurohun, 500 bostehun.
- Milakoa **bananduta** idatziko ditugu.
- Milioikoa ere **bananduta** idatziko ditugu.
- Ehunetik milara doazen zenbakiak era honetan idatziko ditugu: ehunekoa hamarrekotatik **bananduta**, agertzen diren bi parteen arteko lotura “**eta**” delarik.
- Milatik gorako zenbakiak idazteko, irizpide berberaz baliatzen gara. Hots, milakoa **ehunekotatik** bananduta eta bai hauek **hamarrekoetatik** ere.
- Milakoen eta ehunekoen artean **koma** bat jarriko dugu, bestela kakofonia sortuko litzaiguke.
- Milioikoetan, **beste horrenbeste**.
- Zenbakien hasierako h-a, hiruarena izan ezik, **galdu** egiten da zenbakiak lotzerakoan.
- Aldiz, hiru zenbakiaren h-a **mantendu** egiten da

Laburbilduz:

- Zenbakiak lotzerakoan hasierako h-a galtzen ez duen zenbaki bakarra **hirua** da.
- Hamarrekotetan bi parteak lotzeko erabiltzen dugun ETA, TA bihurtzen da
- Honez gainera, $A + A = A$
- $A + E = E$

Hona hemen zenbakiak, letraz idatzita:

- | | |
|--------------|---|
| 1. 3.567 | Hiru mila, bostehun eta hirurogeita zazpi |
| 2. 788 | Zazpiehun eta laurogeita zortzi |
| 3. 1.002 | Mila eta bi |
| 4. 22.467 | Hogeita bi mila, laurohun eta hirurogeita zazpi |
| 5. 1.200.000 | Milioia eta berrehun mila |